


Astekaria

BARRREN

elgoi



Jaien osteko diana



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

3 LAU HANKATAN

"... plaza txikiko lokala okupatzen ari ziren zenbait gazte atxilotu zituen ertzantzak, nere ahizpa barne." **Diana Perez de Albeniz.**

6 ERREPORTAIA: ELGOIBARTARREN UDAKO ABENTUARAK

Aurtengo uda oparoa izan da abenturatan. Zenbait elgoibartar batean zein bestean ibili dira zein baino zein abentura zailagoak burutzen.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER IRUDITU ZAIZKIZU AURTENGO JAIK?

Jose Inazio Sarasua: "Zazpi egunetan zehar jaiak izan ditugu, baina jaietako egitarauak ez du jai giroarekin bategiten".

Amaia Leiaristi: "Aurten ez da falta izan txaflegu hots (...), dantzari eta gure lepoak koloretako koilarez apaintzea nahi izan duenik".

16 BERBETAN

BOST ELGOIBARTAR TXINAN

18 KIROLA:

GAIA: AUTOMODELISMOA: KOTXE TXIKIEN MUNDUA

ELKARRIZKETA: **Gotzone Aierdi**

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

ONGARRI ELKARTEA: ARGAZKI ZALETUEN BILGUNE

21 KULTURA

RAMON ORTEGA: GIZA GORPUTZ BILUZIEN ARGAZKILARIA

TXANDAK

FARMAZIAK:

4, larunbata: **ORMAZABAL**

5, igandea: **ORMAZABAL**

6, astelehena: **BIDASOLO**

7, asteartea: **BIDASOLO**

8, asteazkena: **BIDASOLO**

9, osteguna: **BIDASOLO**

10, ostirala: **BIDASOLO**

OKINDEGIAK:

5, igandea: **ZABALETA**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) 743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32


Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN

Diana Perez de Albeniz



Tolerantzia eta elkarlaguntza nagusi

Gutxi falta zen egunsentirako gertatutakoaren berri izan nuenean, ordurako herri erdia jakinaren gainean bazegoen ere: plaza txikiko lokala okupatzen ari ziren zenbait gazte atxilotuta eraman zituen ertzantzak, nere ahizpa barne. Ez zen sorpresa handia izan, eta lasaitasunez hartzea erabaki nuen, hurrengo goizean etxean izango zirelako sinismenarekin.

Baina, egia esan, ez zitzaidan farrarako gogo askorik geratu, eta berandu gabe oherako bidea hartu nuen, nerbixuak jota lo egin ezinean zebilen ama altxata topatzeko. Alabak gaua giltzaperatuta pasako zuela eta jipoia jaso lezakeelako pentsamenduak beldurtu egiten zuen, noski; baina min gehien eman ziona, herritarren artean poztu zirenak bazeudela aurkitzea izan zen, eta zenbaitzuek bere atsekabeari gustora parre egiten ziotela entzutea.

Goizez jakin genuen hainbeste atxilotutak eragindako dilijentzia zirelakoen ondorioz, ejem, beste eguntxo bat igaroko zutela atsegineko hotelean.

Orduan bai hasi zitzaizkidala tripak benetan estutzen. Nere ahizparen esku-bideen artean familiako inor ikusterik edota telefonoz berba egiterik ez zegoe-la ere jakinarazi zidaten. Egoera ezin

hobean, etxean bezain ondo elikatuta eta kalefaziño eta guzti zeudela behin eta berriz entzuteak ez ninduen, ordea, lasaiago uzten; ezta beste gazteen senideak ere. Nork sinistu?

Gauzak horrela, alkatearen presentzia eskatu genuen, inolako bitartekotzarik posible izango zelakoan, gure senide eta lagunaren egoera eramangarria zela geure buruari ziurtarazi nahian. Pilota partidua, aldiz, herritar batzuen larrialdia baino garrantzitsuagoa iruditu omen zitzaion.

Hemendik eskerrak eman nahi nizkioke herritarrongatik erakutsi duen arduragatik, bere betebeharra ondo baino hobeto burutuz, oso pozik ikusten dudalarik jai hauek "elkar eraman eta alaitasan jator baterako bide" izan direla, berak jaietako programan ederki ondo opa izan digun bezala. Pozgarria da bai kanpoan izan ondoren herrira bueltatzea, tolerantzia eta elkarlaguntza agintari direla ikusteko, batzuek negarrez dabilzan bitartean beste zenbait parrezka eta kopa eskuan hori bera ospatzen ari direlarik.

Eta besteen minak alaitu egiten duen horri, edo horiei, noizbait horrelakorik gerta dakien opa diet soilik, gauzen bestaldea ezagutzeko aukera izan dezaten.

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldegi
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria*

ESTAZIO TABERNA
••• **SUPERMERKATUA** •••
San Inazio, 5 - ☎ 74 03 92

Fotero
OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Euskara

Nere elgoibartar mai-teak:

Kontatu behar dizuet, joan zan astean gertatu zitzaidana. Kalean nindoala, hurbildu zitzaidan bat eta besterik gabe esan zidan, ea zer zan neretzat euskara, hizkuntza bat gehiago ala zer. Harritu egin nintzan, ez bait dut inkestaren bati buruz ezer entzun. Nere erantzuna hauxe izan zen. Hizkuntza bat gehiago? Neretzat ez, ez horixe, neretzat hizkuntza bat baino gehiago da, barruan daramagun gauza haundi bat. Euskera gure amaren sabeletik daramaguna, ni ziur nago, nere amaren sabelean nengoala berba egingo zidala berak (Crucitak). Orduetik daukat nik euskera nere barruan, eta haurra ttaka

ttaka hasten dan bezela, hizketan ere hasten da aita, ama... hitz egiten. Euskera ez da neretzat beste hizkuntza bat, zerbait gehiago da. Euskera maite duan ama batek, nola ez dio hitz egingo barruan daraman haurrari, horren hitz goxoak dauzkan hizkuntza batean?

Miren Vallejo

Bi mexikar San Bartolometan

Eskutitz honen helburua 24 eta 25 urtetako bi neska mexikarrek Elgoibarren izandako bizipenak kontatzea da.

Guretzat, Elgoibarko jaiak inoiz ahaztuko ez ditugun zerbait dira, izan ere, gure ohituretatik oso urrun dagoen zerbait baitira.

Benetan hunkigarria da herri batek jai egun hauetan lor dezakeen elkartasuna. Astebete hain ondo pasa ondoren urte osorako oroitzapena izango duzue elgoibartarrok, eta guk berriz, bitzta osorako.

Jaiek iraun duten astean eguraldia txarra izan bada ere, sinestezi-na da jendeak ondo pasatzeko gogoia ez gal-tzea.

Elgoibarko jai ei buruzko iritzi bat eman baino eskerrak emateko erabili nahi dugu orrialde hau: eskerrak eman nahi ditugu egun zoragarri hauek zuekin batera igartzeko aukera emategatik eta bi elgoibartar gehiago bezala senti araztegatik.

**Lucia Fernandez
Janine Costes**

GOGORATU!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galde-ra, erreflexio... adierazteko aukera ezin hobea daukazue berton.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan behar ko du. Argitaratzera koan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inisialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.



HALTZARIAK OLATZ, S.L.

Ofizinak eta erakusketa: Pedro M. Urruzuno, 8, Tel-Fax 74 38 44

**ELGOIBARKO
Udal Kirol Zerbitzua**

Mintxeta zure esku





AZKUE

Aste honetako erretratua **Ana Mari Mugerzak** lagatakoa da.

Haur eta gazteontzat ezezaguna izango da erretratuko edifikzioa. Non kokaturik dagoen asmatzea zaila ez bada ere (ikusi Pilar Ikastetxea atzeko aldean), zer zen asmatzea ez zaizue hain erraza egingo. Hamar segundu dituzue pentsatu eta aita-amari edota anaia-arreba zaharragoari esateko.

Asmatu al duzue? Elgoibarko Merkatu Plaza zaharra da goiko aldean ikusten ari garena. Hortxe egiten zituzten konprak gure aiton-amonek. Udaletxean esan digutenez, 1925. urtean egin eta 1971. urtean bota omen zuten. Erretratua 1969. urtean ateratakoa da,

bota baino bi urte lehenago, alegia. Pertsonentzako azoka ezezik, Elgoibarko ibilgailuentzako ere inguruan zegoen. Ezkerraldean ikusten duzuen tramankulu arraro hori orduko gasolindegia dugu. Ez dakigu zenbaterainoko kabida izango zuen baina horretxekin errenditzen ziren elgoibartarrak. Bukatzeko, erretratuan azaltzen den detaile batek diskusioa ekarri du gure artera. Behealdean zuriz jantzita dagoen gizonetza zer izan daitekeen asmatu ezinik gabiltza: batzuek munizipalen burua izango dioten bitartean, beste batzuek bandako zuzendaria izan daitezela esaten dute. Batenbatek marinel despitaturen bat izan daitezkeela aitortzen du,...

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Gudego

LURRINDEGIA

San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99

Elgoibartarren udako abenturak

Aurtengo uda oparoa izan da abenturatan. Zenbait elgoibartar batean zein bestean ibili dira zein baino zein abentura zailagoak burutzen. Nanga Parbat, Mosku, Andeak eta Lenin mendia izan dira gure herritar hauek beren abenturetarako aukeratutako lekuak. Jarraian, bakoitzaren bilakaera, zorientzua kasu batzutan eta ez hainbeste beste batzutan, kontatuko dizuegu.

Nanga Parbat

Uztailaren 7an, Pablo Barrenetxea eta Murtziako mediku bat Nanga Parbateko tontorrera iritsi ziren. "Oso pozik gaude, noski" esan digute mendizale elgoibartarrek.

Jeitsieran, eguraldiak txarrrera egin zuen. Gainontzeko kideak, bost egunez eguraldiak onera egin zain egon ziren, baina pilatutako elur mordoak eta bertan zeramatzen egunak asko zirela kontutan hartuta, gailurrera igotzeko asmoa bertan behera utzi zuten.

Latzena mendian gora eta behera ibiltzea izan dela aitor-

tu digute. Neke handia eta zero azpitik 15 eta 20 gradutako tenperatura jasan behar izan dute. "Kilo asko galdu ditugu, baina errez irabazi ere bai". Arriskua ere topatu dute Nanga Parbateko maldetan. "Sustuak euki ditugu. Harriak mordua jausten zian eta kolperik ez hartzeko lurrera bota behar zinen eta horregatik arrastarak egin gorputzian. Baina sustu haundirik ez".

Teknikoki, ez dute berrikuntzarik egin, baina dena den, lehen gipuzkoarrak izatearren Federaziotik zerbait jasoko duten esperantzaz daude.



↳ Nanga Parbateko gailurrean poz pozik.



↳ Alberto Zelaia eta Jabi San Martin Moskuko PlazaGorrian.

Moskun mafia handia dagoela iruditu zaie, eta Errusia eta Poloniaren arteko mugan, ia ia kontrabandista bihurtu zituzten.

Mosku

Zoritxarrez Jabi San Martin eta Alberto Zelaia ez zuten Elgoibartik Moskuraino bizikletaz ailegaterik izan. Arazoak Alemania gurutzatu ondoren hasi ziren. Euria barra-barra, bizikletaren radioak apurtu zitzaizkien... Brest-eko mugara, Bielorrusiara, bisaduetan zetorren data baino bi aste lehenago ailegatu ziren. Azkenean lortu zuten muga pasatzea. Behin Errusian zeudela, Minsk-en, Jabi San Martinek istripua izan zuen. Jabi Minsk-en geratu eta Albertok Moskurantz jarraitu zuen. Heltzeko 300 kilometro falta zitzaizkionean, Alberto zulo batean sartu eta kolpe ederra hartu zuen.

4.000 kilometro egin eta gero, trenean jarraitu behar izan zuten Moskuraino. "Esperientzia oso polita izan da eta gainera erorketekin aspektu berririk ikusi ditugu"

Errusia asko gustatu zaie eta Mosku, berriz, baterez. "Nahiko pobria da baina ez daukate jatekuan falta, lujo barik bizi dira". "Adibidez, *Minsk*-eko poliziak esan zigun tentsio handiak zeudela ekonomian, ze inflazioa oso haundia da".

Moskun, berriz, mafia handia dagoela iruditu zaie eta Errusia eta Poloniaren arteko mugan, ia ia kontrabandista bihurtu zituzten. Moskun erositako tabakoa eta alkohola beraiek pasatzeko eskatzen zieten poloniarrek, beraiek poliziak ez zituztela miatuko argudiatuz. Datorren urterako amerikar kontinentea goitik behera zeharkatu edota *Karakorum* aldera joatea gus-tatuko litzaieke.


Lenin gailurra

Iñaxio Garmendia, 42 urteko elgoibartarra eta bere anaia Mikel, 48koa, uztailearen 12an abiatu ziren Uzbekistan-eko hiribururantz Lenin gailurrera igotzeko asmoaz. Handik, zuzenean, helikopteroz, "kanpo basera" 3.600 metro-

tara, kanpamentu internazionalera joan ziren. Pare bat egunez *Petrosky* mendian aklimatatzen pasa eta gero, "lehen kanpamentura joan eta aklimatatu ondoren bigarrenari ekin". Horrela, azken kanpamentua egin eta atakeari ekin zioten arte. Gorantz zihozela arazoak hasi ziren; "haize handia zebilen gau guztian eta 7.000 metro eta pikura geundela, azken platon, sartu zitzaigun lainoa, oso itsua, eta hantxe erdi galduta geratu ginen, ez atzera ez aurrera. Urratsak desagertzen ziren." Behera jeistea lortu zuten eta hantxe suizar batzuek gailurretik 100 metro-tara gelditu zirela azaldu zieten.

"Hirugarren kanpamentura iritsi ginenean ez zegoen indarririk, ez hankaz ez buruz, bigarren aldiz igotzeko". "Anaiak gainera, bueltan konjelazioak izan zituen. Hori zela eta etxerako bidaia aurreratu eta Zaragozako ospitalera eramane behar izan zuten.

Abentura errepikatzeke asmorik ez dute Gamendiatarrek. "Maila honetako esperientzia eduki nahi genuen, kanpamentuak, aklimazio zer ziren, gora igotzea... Himalayan egiten den mendi estiloa probatu nahi genuen".



↳ Aritza jaioterriaz gogoratu zen Alpmayoko gailurrean.

Andeak

Aritza Monasterio iragan maiatzean, Peruko *Huaraz* araneke mendiak igotzera joan zen. Lehendabizi *Pisco* mendiaren gailurra igo zuen bere emazteak lagunduta. "Atakea neuk bakarrik egin nuen, emaztea kanpamenduan geratu zen". "Gero *Artesonraju* mendiarekin saiatu nintzen, baina haitz artera erori eta beranduagorako lagatzea erabaki nuen." Aritza Monasterioren asmoa ahalik eta mendi gehien bakarrik egitea zen. Dena den, Iruñako eta Bilboko lagun batzuekin batera pista berri bat zabaldu zuten *Alpmayo* gailurrera, Andeetako mendirik ezagunenera. Gero *Huascaran* mendia, hegoaldeko bidetik, Peruar eta bilbotar batekin batera igo zuen eta lehenago igotzen saiatu zen *Artesonraju* mendian azken saiakera egin zuen. Oraingoan ere ezin izan zen gailurrera iritsi, izan ere, 40 metro falta zitzaizkiolarik bertan bera utzi behar izan zuen, " Arriskutsua zen. Izotza solte zegoen eta erortzeko arrisku handia zen." Aritzak Perura itzuli eta bertan geratzeko asmoa duela esan digu.

Aritza Monasteriok Iruña eta Bilboko mendizale batzuekin batera, pista berria zabaldu zuen Alpmayo mendian, Andeetako mendirik ezagunenean.



↳ Iñaxio eta Mikel Garmendia anaiak kanpamentu basean.

Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak?

Norberaren herriko jaiak ez ditudala atsegin esatea nahikoa da irakurleak irakurtzen ez jarraitzeko. Are gehiago oporraldia bukatu ondoren laneko garaia aurrean dugunean. Nolanahi ere jaien inguruko giroari begira ezadostasuna azalduko dut.



Owe Schultz historiagile alemaniarrek "Das Fest" liburuan, aintzinako Olinpia jaietatik Woodstock-eko hiru egunetaraino, ihauteri festa edo industriaren garaipena igaroaz, "jaia" aztertzen du. Bertan honako galdera hau egiten du, norbera bere urtebetetzean bakardadean boteila batekin, Jaia ospatzen ari al da?

Irakurleak ondo pentsa dezala honen erantzuna.

Nire ondokoaren iritzia baiko-rra bada ere, nirea pertsonalki eta nire inguruko hainbatena horrelakoa ez denez, aukera dut hemen azaltzeko.

Zazpi egunetan zehar jaiak izan ditugu, baina jaietako egitarauak ez du jai giroarekin bategiten. Gizarteak azken urteetan jaso duen ordu eta ohitura aldaketak ez dira egitarauetan agertzen.

Hitz baten, egitarauak egunean zehar ospatzeko jaiak dira, eta gaur egunean askok gabaz ospatzen dute. Adibidez, hilaren 28an, Baserritarren egunean, egitaraua ordubatean bukatu arren inoiz baino jende gehiago ibili zen.

Jaiak hasteko era bera ere, azken urteotako txanpain edo... botatzea ez dut batere gogoko, eta pentsamendu hau nik bakarrik ez dudanez, bera zaintzen saiatu beharko ginatke.

Zer esanik ez Txiki eguneko ardo, arraultza eta irin elkar botatzeari buruz. Nik uste dut, ambiente gutxiago antz (usain txar) eta giroak kalean ibiltzean nazka ematen du. Herri bakoitzak bere ohitura bereziak zaindu behar ditu.

Gure herria ardo egilea balitz jokaera hau ulertuko nuke mahasbiltze giroa ospatzeko, baina

denda batetik ardu kar-toiak erosi eta elkarri botatzeak ez du inolako zentzurik, gutxiago hauek 13 urtetik beherakoak direnean, eta hortik gorakoak kaletik iheska dabilzanean.

Epe motzean hau ez badugu moztzen, Txiki egunik gabe geldituko gara elgoibartarrok.

Ni beste herrietako egitarau irakurle amorratua naizenez, kon-turatu naiz plazara etortzen diren musika taldeak inguru honetako onenak direla. Beste urteetan, hauek entzuten jende gutxi izan bada plazan, aurtan, euria dela eta, gutxiago.

Umeek euren "Egan" taldearekin dantzateko aukera izan zuten Kiroldegian. Besteek, berriz, euritan eta bakardadean bukatu zuten beraien saioa. Horrelako eguraldiarekin Kiroldegian egitea ez al da hobe?

Gau giroko jaietan badago orduak zaintzeko beharra ere. Behin hirurak edo laurak ondoren jendeak isiltasuna eskatzen du. Nahikoa da besteenganako errespetu pixka bat izatea (ume, nagusi, gaixo, e.a.).

Baita ere aipatu behar, jaietan ez dugula inongo euskal girorik ikusi. Baina euskal giroa ez du egitarauak bakarrik eskaini behar, herriak eta norberak, euskara kalean erabiliz eta gure ohiturak hobeto ezagutuz aurrera atera behar dugu.

Behar bada, norbaitek gogoratuko ditu Zargoaten, uztailaren 25ean, eta Arnoaten, Pazko erdian, egiten ziren erromeriak. Ordukoa ala oraingo giroa ote hobe? Nik badut erantzuna, eta zuk?

Jose Inazio Sarasua



Barre, algara, zarata, iskanbila eta guztien gaintik alaitasuna nagusi izanik, nork ez ditu egun hauek urte guztian zehar irrifarrere batez gogoratzen? eta beste herrietako jaien aurrean gogor eta zintzo defendatzen?

Jaiek, herri baten izena eta izana piztu eta berpizten dutelakoan nago; herrien izakera desberdinak argi azaltzen baitira, beste gauza askoren artean, beraien festa giroan. Urtean zehar landatutako elkartasun eta lagunarteak fruitua ematen duen garaian eta denok gogo biziz festara elkartzeko garen honetan, guztion patroia den San Bartolome ondartzeko egunak direnik ezin ukatu.

Jai giroan, kezka eta arazok ahal den guztian behintzat ahaztuz, herria alaitasunez jautzen da; eta aurtan ere, urtero bezala, ez da falta izan txafllu hots, suzko errobera, txaranga, dantzari eta gure lepoak koloretako koilarez apaintzea nahi izan duenik.

Ume, gazte eta nagusi denon parte hartzea libre eta beharrezkoa delako, alaitasun eta jai giroak kaleak eta denon bihotzak betetzen ditu. Umeen salto eta jauziak, tiobiboetan ibili beharra eta gauzez etxera, ordu erdi beranduago bada ere joaten uzteko amari eginiko errekuak; gazteen gauzez ibiltzea, zezena, Txiki eguneko ardo botatzea, tabernetako alaitasunean elkartzea; nagusien bazkari eta afariak, San Bartolome eguneko meza nagusia, futbola, plazako dantzaldiak... denontzat ikuskizun, ekintza eta-gustoko zerbituetaz jabe egiteko aukerak ugari dira jaietan.

Nire ustez, jaietako egunik aipagarriena bezala Txiki eguna nabarmendu beharra daukat. Zezena, txaranga musika hotsa, lagunartea, berezitasuna, partizipazioa, herritar guztion elkartzea eta nola ez! hain ohizkoa den ardo botatzea dagoz nire burura. Irina eta arraultzeak botatzeari gehiegikeria baderitotz ere, tabernetan ardo parrastadak botatzea, lehenagoko mahatsaren tokia betez, ez zait gaizki iruditzen; eta gazteok ezik nagusi askok ere momentuaz disfrutatzen dutela ikusteko, ez dago goiz horretan kalera irtetzea besterik. Txiki eguna ezin itxi eta borobilduta dagoenik esan, askok eta askok hain gogoko duten zezena aipatu gabe.

Hala ere, ezin ahantzi egun hauetan herrikanpo daudenak, beraien bihotzetan somatuko duten herri-mina, nabarigoa egiten baita guztiontzat hain esanguratsua den ohituraz beteriko Txiki egun honetan.

Begi bistakoa da jaiak herrian sortzen duten erakargarritasuna noraino iristen den; oporretan kanpora joandako gehienak egun horietarako itzultzen baitira eta kanpoan bizi diren elgoibartarrek ere, ez dute hutsik egiten, lagunentzera etortzen diren kanpotar guztiez gain.

Guztiaiatatik beraz, ezin ukatu, jaiak orokorrean balantze positiboa merezi ez dutenik.

Amaia Leiaristi

ETA ZURE USTEZ?

Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak?



Pilar Arregi
75 urte, jubilatua

Pobriak izan dira. Txurro-rik ere ez da egon. Bestela ondo; pozik pasa ditugu. Lastimia eurixa egin dabala.



Miguel Panizo
56 urte, mekanikoa

Jaiak ondo egon dira. 23an, bezperan heldu ginen. Urtero etortzen gera egun honetarako oporretatik. Urtero bezala ikusi ditut jaiak.



Jon Angulo
11 urte, ikaslea

Ondo egon dira baina eguraldi txarra egin du. Barra-ka gutxi egon dira, autotxokiak falta zian eta txiki-xentzako tiobiboak. Onena zezena izan da.



Garbiñe Gorostiza
59 urte, dendaria

Euriagatik triste samarrak baina bestela animazio handia egon dela iruditu zait. San Frantzisko kalean batez ere, goian apenas jenderik ibili den.



Nestor Fuente
18 urte, ikaslea

Betiko modukoak; ez da gauza handirik egon. Igual inoiz baino gaizkiago pasa ditut jaiak, ba... mobidak, eurixa ere. Egualdixa oso eskasa izan da.



Mari Carmen Martinez
34 urte, erizaina

Izugarri pasatu dut. Dauden bezala ondo daude jaiak, denentzako egon da. Niretzako, egun onena, dudarik gabe, Txiki eguna. Sakratua da.

**ASESORIA
GOZOR**

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



San Frantzisko 30
☎ Dendakoa 74 18 35
Etxekoa 74 14 79

Katebi
Liburudenda

Fotokopiak

Aldizkariak

Eskolako materiala eta Liburuak

Erregaliak

San Bartolome, 5
☎ 74 04 98

Elgoibarko III. Komiki Lehiaketa

Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako lehiaketa honetan nahi duen guztiak har dezake parte, bai bakarka zein taldeka.

Lanak originalak eta inoiz aurkeztu gabeak izan beharko dira. Gaia librea izango da eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte lanek: Formatoa: 18 x 24 zm. Luzera: lau orri. zuri beltzez eginak derrigorrez. Hizkuntza: euskera nahiz gaztelera. Lanak azaroaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira.

C.D. Elgoibar elkarteko zozketa

C.D. Elgoibar elkarteak San Bartolome jaietako feria egunean egingako zozketan honoko zenbaki hau atera da saritua: 7.251. Erretserbako zenbakia, berriz, 2.482 izan da. Zenbaki sarituaren jabeak telebista, garbigailua, musika katea eta bideo kamara jasoko ditu. Saria, 30 egunen buruan jaso beharko da.

Nahitanahiez taldeak izena aldatu du

Punk-rock musika jotzen duen Elgoibarko *Nahitanahiez* taldeak, izena aldatu behar izan du, beste talde batek izen berdinarekin maketa bat atera baitu. Hemendik aurrera talde elgoibartarrak *Kokoteraino* izena izango du. *Kokoteraino* taldeak irailean sei abestiko maketa grabatuko du eta urrirako kalean egongo da salgai.



San Bartolome eguneko meza nagusian Don Benantzio Otaegik, Elgoibarko parroko berria izango denak, lehen meza eman zuen aurkezpen gisa. Don Pedro joan zaigu Aietera eta Don Benantziok helduko dio haren lanari. Parroko berriak esan digunez, hilaren 13ra arte ez dugu gure artean izango, izan ere Elgoibarrera etorri aurretik gauza asko konpondu behar baititu. Don Benantziok Santa Klarako komentuan izango du bizilekua, parrokoaren etxean obrak hasiko dira eta.



Justo Arriolak Ertzantzaren aurkako salaketa jarri du Eibarko epaitegian pasa diren San Bartolome jaietan, berak azaldu duenaren arabera, Ertzantzak atxilotu eta komisaldegian jasotako kolpeengatik. Rafa Feijook ere, Eibarko komisaldegian atxilotuta egon zen denbora tartean jasotako ustezko tratu txarregatik salaketa jarri du.

Gazte Asanbladako bi kideek salaketak aurrera egingo duenaren esperantza dute.

Goiara
San Bartolome, 23
LURRINDEGI ETA GARBIKETA
AUTOZERBITZUA

BOUTIQUE
DEL PAN
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

LALI
ileapaindegia
San Inazio 1. ☎ 74 26 81


Asteazkenean, hilak 8, inauguratu-ko da Mintxetako udal kiroldegia

Mintxetako Udal kirol instalakuntza prest dago asteazken arratsaldeko inaugurazio ofizialerako. Inaugurazio egun hau, berezia izango da, C.D. Elgoibar Elkarteak 75. urteurrena ospatuko baitu egun berean. Udalak eta C.D. Elgoibarrek, bat eginda hainbat ekintza antolatu dituzte egun berezi honetarako. Arratsaldeko 5,30etan inaugurazio partidua jokatuko dute Athletic de Bilbao eta Real Sociedad taldeek, jubenil kategorian, Mintxetako futbol zelaian. Beranduago, 7,30etan, Ego-Tokik antolatuta, atletismo lasterketa batzuk korrituko dira atletismoko pistan. Las-

terketetan kanpoko korrikalariez gain, etxeakoak ere ikusi ahal izango ditugu.

Iluntze aldera, berriz, beste futbol partidu bat jokatuko dute Eibar eta Elgoibarko taldeek. Inaugurazio ekintza ofizialean Elgoibarko Musika Banda eta Haritz Dantza taldearen partaide-tza izango da. Inaugurazioan, herriko agintariez gain, Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta atletismo eta Futbol federazioetako ordezkariak izango dira.

Inaugurazio ekintza ostean, astelehenean, hilak 13an, Mintxetako instalazioa herritarrei zabalduko zaie.



Hilaren bukaerarako Mendaroko gehigarria kalean

Hilaren 24an, ostirala, elgoiBARREN astekariaren Mendaroko gehigarria kaleratuko da. Mendaroko Udalak, BARRENek hilean behin Mendarori buruzko lau orritako gehigarria ateratzeko proiektua onartu du. Oraingoan, abendua bitarteko lau gehigarri kaleratzeko proiektua onartu du Udalak. Informazioa bertoko kolaboratzaileen bidez jasoko da.

Ezinduentzako neguko egonaldiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 21 eta 65 urte bitarteko ezindu fisikoentzat, negu sasoirako egonaldi egitaraua antolatu du. Egonaldiak Guardamar de Segura, Alicanteko herrian izango dira. Edozein galdera edo argibiderako Elgoibarko udaleko Ongizate sailera jo daiteke edota telefono hauetara deitu: 74 37 36 edo 74 10 08

Buztin ikastaroa irailean

Elgoibarko Lurki elkarteak neska mutikoentzako buztin ikastaroa antolatu du. Ikastaroa hilaren 6an hasiko da eta hilaren bukaeran amaitu. Klaseak astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean izango dira. Informazio gehiago nahi duenak, Lurkiren egoitzara, Aita Agirre Plazako arkupeetako lokalera jo dezake.



ANCHUSTEGUI S.a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.**

**Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.**

Bukatu da, bukatu da...

Elgoibar izango da seguraski Euskal Herri osoan oporren ondoren txapligu eta musikarekin lanean hasten den herri bakarra. Ohitura, duela 20 bat urte hasi zen, Jaime Arrese alkate zela. Afari bat apustu egin omen zien alkateak, ezetz txarangak elgoibartarrak lanerako esnatu. Baietz eta ezetz, azkenean atera ziren eta hala jarraitu dute azken urteotan. Irailaren 1eko kalejirarekin egunerokotasunari hasera eman ohi diogun arren, ez da berandu egutegian orrialde batzuk atzera egin eta San Bartolome jaietako azken egunak erreparatzeko. Hona hemen gure kamarak harrapatu zituen zenbait momentu.



● Batzuek BARRENEk Elgoibarren bete ditzakeen funtzioak asmatzeko burua hausten diharduten bitartean, hara gaztetxo hauek nolako pista eman diguten. Jakingo balute egitea zenbat kostatzen den! Diru gutxiagorekin ganorazko aterki batzuk aterako ditugu aurtengo neguan.



● **Margo Lehgiaketa:** Sinistu ere! Apustu egingo genuke datorren ikasturtean ezetz hain formal egon eskolan. Biserak elegante jantzi eta gustura aritu ziren marrakiak egiten dituzten abileziak erakusten. Irabazleak denak izan ziren eta marrazki politena, bakoitzarentzat berea. Baietz???

● **Sokamuturra:** Aspaldian horrelako estuasunik ez zuen pasako gizarajoak. Eskerrak parte eta zezenaren artean baila pila bat dagoen! Halere, eta bailek kale egiten badiote, zaldigaineko pikadorerik onenaren pare ikusten dugu guardasol punta prest daukalarik. Honi ere esango zion emazteak zezenarengana ez urreratzeko, baina!



● **Ginkana:** Eguraldia negargarria izan bazen ere, aparte-ko arrakasta lortu zuen Hiperginkana frogak. Argazkian, irabazi zuen taldea frogaren hasieran. Hamabi taldek eman zuten izena eta hamaika azaldu ziren. Ikus dezagun sailkapena nola gelditu zen:

1- Txuri-Urdin 50.000 pezeta, 2- Txintximinak 40.000 peze-
ta, 3- Rebel-Urbi 30.000 pezeta, 4- Satorrak 20.000 pezeta,
5- Trastornos 10.000 pezeta, Gainontzeko taldeek 5.000
pezeta jaso zuten. Antolatzaileek esan digutenez benetan
txalogarria izan zen partaideek izan zuten jarrera. Parte
hartu zenutenoi beraz, mila esker antolatzaileen partetik.



garajea

ASTIGARRAGA

San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86

- ✘ Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- ✘ Motoserrak
- ✘ Desbrozadorak
- ✘ Neumatikoak
- ✘ Bizikletak

KATIUSKA
T a b e r n a

Errosario 28. Tel. 74 0038 ELGOIBAR



● **Ganadu Sariketa:**

Benetan abere ikusgarriak ganadu sariketa eta txapelketan miretsi ahal izan genituenak. Argazkian Aldapa baserriko behi saritua eta jabea, saria eskuan duelarik.

AZKUE

● **Sagardo Lehiaketa:**

Batzuek ederki busti zituzten eztarriak sagardo goxoarekin. Dastaketa ondorengo sariketan, Asteasuko Sarasola sagardotegiak 136 puntu lortu zituen. Beraz, berarentzako lehen postua. Bigarren, 134 punturekin Eizmendi sagardotegia geratu zen eta, hirugarren, 131 punturekin, Garziategi sagardotegia.

● **Dantza Txapelketa:**

Igande arratsaldeko dantza lehiaketa ez ohizko tokian ospatu zen. Plazako eskenatokia gauean kantatu behar zuen taldeak okupatu zuenez, eliza aldameneko bolatokian egin zen dantza lehiaketa. 14 urtetik beherako 17 bikotek hartu zuen parte eta irabazleak Asier eta Laura izan ziren, 14 urtekoak biak, bata, bergararra eta bestea, hernaniarra. Bikote irabazleak 14.000 pezeta, txapela, zapia eta garaikurra jaso zituen.



AZKUE

INTERIORES

CLARA ARRILLAGA
Dekoratzaille-Proiektatzaile

PROIEKTUAK-ERREFORMAK
-LOKAL KOMERTZIALAK
-ETXEBIZITZAK-ENPRESA

Tel:74 40 55-74 40 19. Errosario 15



AITZ BIZKAR ARDOAK

ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA
ETXERAINOKO
BANAKETA

Errosario 18
Tel. 74 02 37



Bost elgoibartar Txinan

Xabier Arriola, Karmen Iriondo, Myriam Iriondo, Izaskun Landa eta Ines Sesmak aurtengo udako oporrak

Txinan pasa dituzte. Hogeitamar egun iraun dituen bidaian Txinataz jaso duten inpresioa kontatu digute.

- Nola bururatu zitzazuen Txinara joatea?


- Asia aldean bost urtean ibili ondoren nahiko ezberdina eta interesgarria izango zela pentsatu genuen; orain arte itxita egon delako, oso kultura zaharra duen ideia daukagulako... horregatik, hori pixkat ikusi eta eza-gutzeagatik.

- Zuen aldetik ala bidaia organizatu batean joan zarete?

- Inoiz ez gara oportetara planifikaturik atera. Beti "sobre la marxa" joaten gara. Agian piska bat gehiago planifikatu beharko genuke, baina normalean joan-etorriko txartela erosi eta ostantzekoa bertan inprobisatzen dugu.

- Horren zabala den lurralde batek aukera asko eskainiko ditu. Zein lekutan egon zarete?

- Bilbotik Londresera eta hemendik 10 orduko hegaldi batean Pekinera zuzenean. Pekinen lau egun egin ondoren trenez hegoalderago dagoen Sianera, bertan 6 egun igaro genituelarik. Sianetik Lanchou-ra, han enteratu ginen peregrinazio leku bat zegoela eta honela 3.000 metrotara dagoen monasterio budista batera



"B izitzeko duten erritmoa ikaragarria da, egun guztian dago izugarritzko mugimendua"

joan ginen. Leku zoragarria da eta, nahiz eta Txinan egon, jendea guztiz Tibetanoa da. Gero, berriro bueltan, Lanchou-tik hegaldi "arriskutsu" batean Pekinera, eta han bi egun pasa ondoren bueltako bidea hartu genuen.

- Ze kontraste nagusi aurkitu duzue?

- Hasteko jende kopuru ikaragarria eta bizikletak ere beste hainbeste. Bestalde, oso industrialia da, guk aintzinako templu e.a. egongo zirela pentsatu bagenuen ere, arkitektura aldetik dena arrasatuta dago, bloke haundi uniforme eta grisez berritua.

Pekinen "El Templo del Cielo" bakarrik dago, beste dana raskazieloak dira. Bizitzeko duten erritmoa ere, ikaragarria da, egun guztian dago izugarritzko mugimendua; goizeko 6-etan hasi eta gaueko 12-ak arte.

- Erregimen komunistak eraginik izan al du herriaren aurrerapenean?

- Herria maila batzuetan asko zabaltzen ari da, industria asko egoteak laguntzen duelarik. Adibidez, Pekinen solar, denda, etxe eta h6tel pila bat ari dira edifikatzen.

Bestalde, funtzionario

asko egoteak gauza sinpleenak lortzeko orduan oztopoak sortzen ditu. Hilabete batean ezin dira gauzak ondo aztertu eta batez ere, oso zaila delako jendearekin komunikatzea. Adibidez, aldaketa nabaria emakumeen berdintasunean antzematen da. Hezkuntzan, medizinan... maila honetan dena dohan dute. Baina bestalde, kultura mailan dena arrasatu dute. Beraien lema"dena apurtu berriro eraikitze" izan zen, lorak arrasatzera heldu zirelarik. Oraindik komunismoaren papera asko nabaritzen da kaleko egunerokotasunean.

- Inoiz Txinara joateko tan ze aholkatuko zenigukete?

- Lehenengo pazientzia eta bigarren apunteak. Berdin dio ingeles perfektu bat jakitea, ez du balio: eskatu behar den guztia, txinoz markatu behar izan dugu. Hizkuntza aldetik arazo larria dago. Bestalde, oso zaila da han mugitzea eta plan asko egitea ere ez da komeni. Adibidez: treneko txartel bat ateratzeak goiz osoa eta arratsalde partea kostatzen du. Horregatik pazientzia oso inpostantea da.

Belen Arrizabalaga

Felipe Castrillejo

Estankokoa



-**Noiztik estankuan?** - Aitari laguntzen orain dela 17 urte hasi nintzen. Dedikazio osoz 9 urte daramatzat.

- **Jendeak gutxiago erretzen al du orain?** - Askok laga dau tabakua, baina erretzaile berrixak ere asko dira.
- **Tabakoa, beltza ala rubixua?** - Rubixua.
- **Tabako onena?** - Chester alde haundixakin.
- **Asko erretzen al dozu?** - Pakete t´erdi egunero.
- **Kiniela, bonoloto, primitiba...** - Primitiba.
- **Sari haundi bat tokatu ezker...** - Munduari buelta emango nioke.
- **Oporrik euki al dozu?** - Aurten lehenengo aldiz 15 egun euki dogu itxita estankua.
- **Kanpora urten al zera?** - Palentzian egon naiz, Astudillon.
- **Mendixa ala hondartza?** - Mendixa, dudaripe.
- **Bizitzeko toki bat?** - Elgoibar.
- **Plaza haundixa ala Maala?** - Eguerdixan Plaza Haundixa eta gabian Maala.
- **Telebista ala irratia?** - Lanian irratia eta etxian telebista.
- **Musika klasikoa ala Rocka?** - Pop Rocka.
- **Zaletasunak?** - Futbitoa, irakurketa eta zinea.
- **Gehixen gustatu jatzun liburua?** - “El silencio de los inocentes”.
- **Eta pelikula?** - “La vida de Brian”, barre asko egin naberen.
- **Urteko egunik onena?** - San Bartolome bezpera.
- **Pertsonaia historiko gustokoena?** - Ez daukat heroerik.
- **Zein gonbidatuko zenuke afaltzera?** - Familia eta lagunak.
- **Eta zer afalduko zenuke?** - Arraultzak, mariskua eta angulak.

Aitor Zabaleta

BERTSOTAN

SAN BARTOLOMIAK

Doinua: Hamaika aldiz

Zahar eta gazte ibili gera pozik herriko jaixetan
Aste oso bat goiz eta arrats pasatu dugu olgetan
Sokamuturra eta txaranga kontzertu franko gauetan
San Bartolome ongi porta da berriz aurtengo honetan.

Eguraldia ez da portatu San Bartolomeren gisan
Istilu batzuk Plaza txikiko Gaztetxearen defentsan beraz gauza bat nik nahiko nuke azken puntu hontan esan
Jaiak ederrak baziren ere hobeak litezke izan.

Irati Agirreazaldegia

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ez. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

ARAMBURU

BITXIDENDA

San Frantzisko, 26.

☎ 74 25 35

Udalak berrikuntzak egin ditu Kiroldegian

Kiroldegiaren egoera aztertu, eta premiazko beharrak zeudela ikusita, Elgoibarko Udalak zenbait berrikuntza egin ditu bertako instalazioetan. Kiroldegiko igerilekuko aldageletan, emakumezkoen zein gizonezkoen aldageletan dutxak jarri dira. Squash eta auresquashean, ormak berriak egin dira eta berriz margotu.

Berrikuntza hauetaz gain, Udalak garbitasun sakona egin du kiroldegi osoan. Oraindik beharrak badaudela ikusita, Udalak berrikuntza gehiago egiteko asmoa du.

Morkaikok herriko hiru mendizale omenduko ditu

Datorren ostiralean, gaueko 10etan, Morkaiko elkarteak Nanga Parbateko gailurrera igo diren Aitor Esnaola eta Pablo Barrenetxea omenduko ditu eta Aritza Monasteriori agurra egingo zaio. K-2 pelikularen aurretik, Nanga Parbat hartutako 20 minututako diapositiba saioa emango da eta segidan Andeetan ateratako 10 minututako proiektzioa. Larunbatean afora eskainiko zaie omenduei. Afarirako izena eman nahi duenak Morkaikoko lokalean egin dezake. Bestalde, iganderako Arlaban-Urbiatrabesia antolatu du Morkaikok. Irteera Plaza handian izango da goizeko 8,30etan eta bazkideek 800 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 1000 pezeta.



Gotzone Aierdi:

"Bizitzako aldapak errepidekoak baino gogorragoak dira"

-Nola zaletu zinen txirrindularitzara? -Beti euki izan det txirrindularitzan ibiltzeko afizua, bueno, kirol guztietan. Hasieran futbolian ibili nintzan, baina afizio hutsa zan. Azkenian txirrindularitzan hasi eta orain 3 urte daramatzat.

-Orain arte nola moldatu zara lasterketetan? -Ba, nahiko gaizki. Maila handia dago, topera entrenatua dago jendea, horretara bakarrik dedikatzen dira. Nik, berriz, lan asko egiten dot eta ez daukat astirik; afizioa, berriz, bai.

-Txirrindularitzarekiko zaletasun hain handia egonda, nolatan dago horrelako emakume txirrindulari gutxi? -Hemen dabizen neskak hondartzara joaten direnak dira. Bestela, Elgoibarren ez dago baterez. Orain Eibarko neska bat hasi naiz ikusten, baina bestela ez dago. Erretereri aldean neska gehiago dago.

-Txirrindularitzan egiten al zaio diskriminaziorik emakumeari? -Baliteke. Ze mutilen karrertan pelotoitik aldentzen bazera denbora dexente lagatzen dizue, baina neskei ez. Nesko, mutilek baino polikiago korritzen dogunez, atzerapen denbora gutxiago lagatzen zaigu. Lasterketako juezak



SOARTE

esaten digu errepidean traba egiten dogulako dala hori.

-Zer asmo dituzu denboraldi honetarako? -Belaunetatik gaizki nabil, minez. Horregatik ez dakit zer izango den, segi, ez segi...

-Gutziz lagatzeko asmorik? -Ezta pentsatu ere!. Beharbada errepidea laga eta mountain bikean hasi, baina laga, inoiz ez.

-Zer dira gogorragoak, bizitzako aldapa gorak ala errepidekoak? -Bizitzakoa. Errepidean sufritu egiten dozu, baina mendate batean adibidez, tontorretik igarotzerakuan txarrena pasatu dozula ikusten dozu. Bizitzan oso desberdina da.

- Adina: 20.
- Hobbyrik? Motorra eta musika entzun.
- Zer gorroto duzu? Diskriminazioa.
- Desio bat? Txirrindularitzan arrakasta lortzea.
- Bidaiatzeko? Motorra.



ileapaindegia
estetika

IDAMA

Santa Ana, 7
Tel. 74 40 26



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

sarieta

modak

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

Automodelismoa: Kotxe txikien mundua

Jon Gonzalez Barrutia elgoibartarra, behin, Logroñon, lur gaineko automodelismo lasterketa bat ikusi ondoren kirol hau egiten hasi zen. Gaur egun, Euskadiko jubenilen txapelduna da, Errioxako Nagusien mailako txapelduna ere bada, eta, egunotan Espainiako txapelketan parte hartzeko entrenatzen ari da.

Jon Gonzalezek 16 urte ditu eta duela bost urte hasi zen 1/8 eskalako kotxeekin lasterketetan parte hartzen. Aurtengo Espainiako txapelketan lehen hogeitau sailkatuen artean gelditzea, pozik egotekoa dela esan digu. Benetako kotxe baten pieza eta zati guztiak ditu Jonen Inferno 4WD modeluko kotxeak, baina tamaina txikian. Olioizko amortiguatzaileak, aluminiozko zilindroa, bujiak, pistoiak..., benetakoak bezalakoak.

Automodelismoa egi-tea nahiko garestia da. Jonek, 130.000 pezeta ordaindu ditu kotxeagatik eta errekanbio piezak ere

Jonen Inferno 4WDak 90 km orduko gehieneko abiadura har dezake lurrezko pistan.

garesti xamar dira. Pistoi batek, esaterako, 13.500 pezeta balio ditu. Esan digunez, behar beharrezkoa da sponsor baten laguntza izatea. Joni MOTUL etxeak laguntzen dio. Urtero diru kopuru bat ematen dio berak beharren arabera gasta dezan.

45 zentimetro baino neurtzen ez duen kotxe honek alkohol eta olioizko erregaia erabiltzen du. Lasterketa batean gasolina depositua 5 minututik behin bete behar izaten da, depositoarene ahalmena 100 zentimetro kubikotakoa baita.

Automodelismoa, iharduera bikoitza da: lasterketetan korritzeaz gain, kotxea muntatu eta desmuntatu egin behar da. Lasterketa baten ostean pieza guztiak kendu, apurtutakoak konpondu

e.a. egin behar izaten da. Honi esker Jonek kotxeen mekanika ezagutu du. Izan ere, datorren urtean automozioa ikasiko du.

Jon, lur gaineko lasterketetan aritzen da eta pistakoak baino espektakularragoak omen dira, jauziak, derrapeak eta denetarik egiteko aukera baitago.

Kotxea mugiarazteko mandu bat erabiltzen du

Jonek. Manduari esker, frenatu, azeleratu eta bolantea mugitzen du eta mikrouhinen bidez, agindua kotxeari heltzen zaio. Batzutan uhinen frekuentzia aldatu beharra izaten du, frekuentzia berdina duten kotxeekin interferentziarik ez gertatzeko.

Aurrerago, kart, Copa Clio edo horrelako lasterketetan parte hartzea gus-tatuko litzaiokeela dio.



↳ Irailean izango den Espainiako txapelketan hartuko du parte Jonek.

INFERNO 4WD

Fitxa teknikoa

PISUA: 3,560 kilo

ABIADURA: 80-90 km/h lur gainean
110 km/h pistan

RPM: 26.500

MOTORRAREN EZAUGARRIAK: 3,5 cc eta
2 zalditako potentzia eta 2 denborako motorra

NEURRIAK: 45 zmtako luzera
31 zmtako zabalera

FRENOAK: diskodunak

DIREKZIOA: serbodirekzioa

KOSTUA: 130.000 pezeta



Ongarri elkarte: argazki zaletuen bilgune

Ongarri argazki taldea
 1960. urte inguruan sortu zen. 1975. urtean eten bat izan ondoren, 1981. urtean berriro ere funtzionamenduan hasi zen. Urte hartan Ongarri Kultur Elkartearen baitan zeuden 6 pertsonak argazki taldea martxan jartzeko ardura hartu zuten.

Ongarri Kultur Elkarte bost edo sei ihardurak osatzen zuten (literatura, zine kluba...); eta tartean, argazki taldea. 1981. urteaz geroztik talde bezala funtzionatzen du Ongarrik. Gaur egun 21 kide daude elkartearen eta 30 bat izatera ere iritsi dira. Taldean sartzean, kide bakoitzak 6.000 pezeta jarri behar ditu eta hileroko, 500 pezetako kuota.

Diru horrekin laborategiko gastuak ordaintzen dira eta argazkigintzari buruzko aldizkari eta liburuak erosten dira. Lehenago Ongarrik boletín bat argitaratzen zuen eta bertan erakusketa, rally eta hitzaldiei buruzko infomazioa ematen zen. Baita argazki materiala non lortu merkeago ere, txaskarriloak eta horrelako informazioa ematen zuen boletínak.

Gaur egun, ordea, Ongarriren dinamika

asko hoztu da, beste elkarte guztietan bezala, eta bakoitza nahiko bere kabuz ibiltzen da.

Ongarrik burutu izan dituen ekintzak hitzaldiak, ikastaroak, rallyak eta erakusketak izan dira batez ere. Gaur egun ikastaroak nahiko zentzugabeak bihurtu dira maki-

Ikastaroak nola eman birplanteatzen ari dira Ongarrikoak. Kreatzio prozesua irakastea garrantzitsuagoa da beraien ustez.

na gehienak automatikoak baitira. Hori dela eta azken urteotan, ikastaroriek nola eman birplanteatzen ari dira. Kreatzio prozesua irakastea garrantzitsuagoa dela

konsideratzen dute Ongarrikoek. Beraien ustez, argazki jakin bat egiteko nondik begiratu, da irakatsi behar dena.

Abuztuan eta irailean burutzen ari diren erakusketaren ondoren, atsedean hartuko dute Ongarrikoek. Izan ere, diru kontuak nahiko makal dabilta elkartearen. Udalaren laguntzaz gain Aldundiaren laguntza ere jasotzen dute baina beraiek esan digutenez, diru guztia desagertu egiten da eskuratu bezain pronto, gastuak asko baitira.

Gaur egun edonor izan daiteke Ongarriko bazkide. Hori bai, laborategira lanera joan ahal izateko bazkide baten ardurapean izan beharko da beti.

Ongarri elkarteak zuri-beltzeko errebelatua egiteko makinariatz gain, koloretan errebelatzeko

makineria ere badu. Kodak etxearen "Hectaflex" sistemaren bidez eta "Cibacrom" deritzon sistemaren bidez errebelatzeko aukera ematen duen makineria dute. Lokalaren arazo nagusia orain, txiki geratu dela da. Argazki errebelatuak behar duen hezetasuna kaltegarria da aldizkari eta liburentzat. Egokiena, beste lokal txiki bat eskuratzeko izango litzateke artxibo gisa erabiltzeko.



↪ Ongarrik 1985. urtean antolatutako argazki rally-a

SARASUA

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1960
Arduradunak: Ramon Ortega eta Jesus Mari Sarasua
Bazkide kopurua: 21
Kuota: 500 hileroko
Iharduera: Argazkilaritza
Helbidea: Aita Agirre Plaza

Ramon Ortega: Giza gorputz biluzien argazkilaria

Elgoibartarrok, Ramon Ortega argazkilariaren argazki bilduma ikusteko aukera izango dugu datorren larunbat arte.

Erakusketa San Bartolome jaietatik dago zabalik eta bisita ordutegia arratsaldeko 7etatik 9etara bitartekoa izango da Kultur Etxean.

Ramon Ortegak giza gorputzari buruzko 12 argazki dauzka erakusgai Kultur Etxeko beheko solairuan. Zuri beltzeko argazkiok gorputz biluzi klasikoa erakusten dute, tonalitatez beteak, guztiz naturalak eta sinboloz josiak. Giza-kiaren neurriko argazki

hauek, kasu batzutan are handiagoak bisitariaren arreta deitzeko gai dira.

Gaztetatik argazkigintzan

Ramon Ortegak 37 urte ditu egun, eta 20 urterekin ekin zien argazkigintza ikasketei. 1979. urtean irabazi zuen lehen saria eta hurrengo bost urtetan zehar "El Correo Español" egunkarian aritu zen lanean. "El Ciclista" aldizkarian ere jardun zuen eta lehiaketa ezberdinetan parte hartu eta sariak irabazi zituen.

1981. urtean Ongarri, argazki elkarte gisa gorputzen denean, Ramon Ortega sortzaileen artean



SARASUA

↳ Gorputz biluziak giza tamainakoak dira.

zegoen eta 1981-83 eta 1987-93 urteen bitartean elkartearen presidentea da.

Argazki irakasle lanarekin batera, liburu eta egutegi zenbaitetan aritu da.

Ikusentzuteko alorrean, Zaire eta Tanzanian hartutako irudiekin lehen bideo lana egin zuen eta

beranduago, esperientzia errepikatu zuen Hego Ameriketako herrialde batean.

Ordudanik taldekako zein banakako erakusketa askotan hartu du parte. Egun, "Linea Abierta", "Arte Fotografico", "Diorama", eta "Visual e Imagen" aldizkarietan ikus ditzakegu bere argazkiak.

Gaur egun puntako aldizkari espezializatuetan ikus ditzakegu Ramon Ortega elgoibartarraren argazkiak

PETUNIA

Modak

Errosario 12, tel: 74 16 48

Iraegui

ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52

San Antolin 74 37 06

ecenarro

Barruko erropak

Umeentzako erropak

San Frantzisko 10, Tel.: 74 26 19

4 *Larunbata*

22,30 ZINEA

"El ojo público". USA 1992
Zuzendaria: Howard Franklin
Aktoreak: Joe Pesci, B. Hershey
Tokia: Plaza Handia
Antolatzailea: Ongarri Zine Klub-a.

Z I N E A

"El ojo público"

40. hamarkadako egunkarien azalak jasaten zituzten argazkiak, gaur egun museo piezak badira ere, garai hartan ez zen hala izan. Argazki horiek ateratzen zituztenak gauz ibiltzen ziren, sistema-aren aurka beti, eta hilotz bakoitzagatik hamar xentimo ordaintzen zitzairen. "The public eye" gizon hauei egindako omenaldia da. Leon Bernstein argazkilaria- ren bidez hiltzaile, polizia eta horien mundua azaltzen du peli- kulak.

Z I N E A

8 *Asteazkena*

20,00 MINTXETAREN

INAGURAZIOA

17,30: Futbola: Athletiz-Erreala
19,30: Atletismoa
20,30: Futbola: Eibar- Elgoibar
Musika Banda eta Haritz Dantza
Taldearen
partaidetzarekin.

10 *Ostirala*

22,00 DIAPOSITIBA

EMANALDIA

Gaia: Nanga Parbat eta Andeak
Tokia: Plaza Handia
Antolatzailea:
Morkaiko Mendizale Elkartea

22,30 ZINEA

"K 2". USA 1993
Zuzendaria: F. Roddam
Aktoreak: M. Biehn, M. Craven,
R. J. Barry,
Tokia: Plaza Handia
Antolatzailea: Ongarri Zine Klub-a.

Z I N E A

"K 2"

K2a, 8.260 metroekin, munduko bigarren mendirik altuena da eta Himalaya mendikatean dago. Arraroa badirudi ere, pelikula hau, bi eskalatzaileen igoeran oinarritua, antzerki-lan batetik sortu da, mendi-eskaladako kontakizunei fikzio kutsua emanez. 1953. urtean lehen aldiz igo zenetik, 50 lagun inguruk lortu dute K2a igotzea, baina saiakeran 30 baino gehiago hil dira. Filmea suspensearen erakustaldi bizia da, errealizatzaileak igoera- ren irudi epikoak sartuz lortzen duena.

Z I N E A

UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

JAIOTAKOAK

Lorea Aizpitarte Goikoetxea
Uztailak 12
Iker German Manzidor
Uztailak 16
Aintzane Arizmendi
Uztailak 21
Maite Isabel Garate Zubizarreta
Uztailak 27
Eneko Iriondo Unzilla
Abuztuak 2
Kristina Arizmendiarieta
Abuztuak 16

HILDAKOAK

Gillermo Garmendia Lasa
uztailak 1 (71 urte)
Migel Etxabe Etxaniz
uztailak 5 (82 urte)
Justo Manzidor Osoro
uztailak 5 (69 urte)
Begoña Ibaibarriaga Ezenarro
uztailak 21 (56 urte)
Maria Josefa Txurruka Arozena
uztailak 21 (83 urte)
Teresa Kortaberria Lazkano
uztailak 26 (79 urte)
Tomas Soto Cuevas
uztailak 26 (80 urte)
Josefa Lizarralde Azpiazu
uztailak 27 (94 urte)
Basilio Guridi Belategi
uztailak 27 (81 urte)
Pilar Valencia Escudero
uztailak 28 (60 urte)
Joakin Altuna Ramirez
uztailak 30 (76 urte)

EZKONDUAK

Jose Manuel Del Pino eta Maria Izaskun Zialtzeta(Uztailak 3)
Francisco Javier Garcia eta Virginia Arrillaga (Uztailak 3)
Luis Maria Rodriguez eta Maria Inmaculada Alzas(Uztailak 3)
Jose Andres Avila eta Maria Angeles Limia (Uztailak 13)
Iñaki Eizagirre eta Almudena Cuesta (Uztailak 17)
Juan Jose Arevalo eta Emilia Vazquez (Uztailak 24)
Francisco Javier Txueka eta Mari Carmen Pablos (Uztailak 24)
Manuel Bote eta Mari Carmen Alonso (Uztailak 24)
Aitor Intxausti eta Isabel Vergel
(Uztailak 31)

Etxebizitzak

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5.
74 35 09 - 74 31 66

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpoko aldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketenezat aproposa.
Tel: 74 29 05

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 8Belen.**

Lana

Neska euskalduna naiz eta haur bat zaindu edo etxeko lanbak egiteko prest nago.
Deitu 74 07 30

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOkoko haurrei. Magisteritza tituloa eta ingenieritza ikasketak ditut.
74 28 53 Alazne.

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit.
Ainhoa 74 16 89

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeke prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60

Salerosketak

YAMAHA TZR-80 c.c. saltzen dut. Egoera onean.
Deitu lan orduetan. 11 33 32

TOYOTA LAN CRUISERA SS -AF bat saltzen dut.
Deitu lan orduetan 74 13 33

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa.
Deitu 74 02 09 Ainhoa

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da.
Deitu 74 28 56 gauez.

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neska-
ren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan. **94-6201918 ra (Gorka).**

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N
74 14 80 Javi

Umeentzako bizikleta eta uretako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

Garaje bat saldu edo alokatu-ko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nitzuke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Kontaktuak

Eraztun bat aurkitu dut.
Deitu 74 22 33

Donostian pisua alokatzeke, pisu lagunak behar ditut. 23 urtetako Mutrikuarra naiz.
Idoia 60 35 34

Etxe bat alokatu nahi dut. Altzariak baditu hobe.
Ainhoa 74 13 61 7etatik-9etara

Orrialde honetako iragarkiak doan dira. Testua idatzi eta ekarri elgoiBARREnera.

TESTUA.....

.....

.....

.....

.....


.....

MITZ BIZKAR
— Taberna —
Errosario, 20.

Osozo erlojudenda

◆ ◆ ◆ ◆ ◆ BITXIAK ETA OPARIAK ◆ ◆ ◆ ◆ ◆

San Frantzisko, 5. ☎ 74 03 42 ELGOIBAR



SUBARU



BERTONE

NIPON AUTOAK

GIPUZKOARAKO ORDEZKARI OFIZIALA

634 ERREPIDE NAZIONALA, 52. KM

☎ 74 31 70 - 75 50 72

MENDARO



40 urtetik gorako esperientzia automobilaren zerbitzura